

IGO ERRONKA:

KUTXA IBILTARIA

Zuen eskolako gainontzeko ikaskideekin batera aukeratu duzuen GGG gaiaren zein egoera edo aspektu zehatz landuko duzuen erabaki beharko duzue. Kutxa ibiltari bat bueltaka jarriko duzue klaseetan zehar ahalik eta iritzi gehien jasotzeko asmoz (ahalik eta ahots gehien entzunak izan daitezela!).

GILTZARRIAK:

- Kutxa egin eta ondo erabiltzeko arauak sortu.
- Kaxa alde batetik bestera ibili dadila zuen ikaskideen ekarpenak barruan sartuz.
- Kutxa barruko paperak aztertu eta horien laguntzaz fokoa Gu Geu Gean zehar aukeratu duzuen gaiaren zein aspektutan jarriko duzuen erabaki.
- Zabalkunderako lema bat sortu!

Erronkaren hasiera-eguna: Otsailak 9.

Bideoa sarera igotzeko azken eguna: Otsailak 28.

URRATSEZ URRATS:

1. Kaxa bat diseinatu, berezia den kaxa bat. Zuen sormena erabili arreta deituko duen kutxa bat izan dadin. Bertan, eskolako gainontzeko ikaskideei paper zati bat barruan sartuz aukeratu duzuen gaiaren inguruan zein egoera zehatz landu nahi duten eta nola landuko luketen proposatzeko aukera eman.

Kutxak argibide argiak izan behar ditu: Gaiaren zein aspektu iruditzen zaie garrantzitsuena? Zergaitik? Eta zer egin dezakezue zuek, eskolako ikasle bezala, modu sinple batean kontu honi konponketa bat aurkitzeko?

2. Gainontzeko eskolak orain eta aurrerago egingo duzuenaren berri izan dezan zein estrategia erabiliko duzuen erabaki. Adibide moduan: Eskolako sarreran mural bat jarri, klasez klase joan, sare sozialetatik deialdia zabaldu, jolasgaraian antzerki edo parodia bat egin...

3. Zuon ikaskideen iritziak jasotzeko unea iritsi da. Ahalik eta pertsona gehien parte-hartu dezala, zein erreztasun eskaini dezakezue horretarako? Orduan eta partaide gehiago, orduan eta handiagoa izango da zuen eragina!

4. Ikaskideen erantzunak irakurri eta aztertu, horietako zein edo zeintzuk dira zuen ustez nabarmenenak edo indar gehiena dutenak? Gehien errepikatzen diren erantzunak izan daitezke, edo, aitzitik, berezienak edo argienak direnak. Ekintzara eramaterako garaian eskolan, auzoan edo zuen inguruan eragin handiena izan dezaketenak zeintzuk diren baloratu...

Eta horietatik aukeraketa egiten duzuenean, "Kutxa ibiltarian" parte-hartu duten guztiei hartu duzuen erabakia jakinarazi iezaiezue.

5. Azkenik, aukeratutako gai zehatza eskuan duzuela, jolas guztirako balioko duen lema bat sortu!

Prozesu guztia grabatu eta guri bidali posta elektronikoz! Bideoak ez du minutu bat baino gutxiago edo bi minutu baino gehiagoko luzera izan behar. Eta egin duzuen lema barruan azaldu dadila!

Bideoaren agurrean, "kutxa ibiltarian" parte-hartu duten guztiekin "Gu Geu Gea!" oihukatu!

Gogoratu bideoa bidaltzeko otsailaren 28 arte duzuela!!

EGURRA!

GU GEU GEA!

Erronkaren inguruan zalantzarik izatekotan info@emanhar.org-ra idatziguzue edo Instagram nahiz Facebook bitartez egin!